

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI ZINEA

'Dantza' eta 'Ralph rompe internet'

Dantza eta Ralph rompe internet egongo dira Biterin bihartik. Ralph rompe internet etzi eta igandean eskainiko da, 16:30etan. Dantzaren ordutegiak atzo argitaratu ziren Kronikan. Biak ikusle guztientzat dira. ■

■ HERNANI LITERATURA

Miren Peñagarikanok, Igartua beka

'Nik kontrolatzen dut makina' poesia lanarekin irabazi du hernaniarrak Karmele Igartua sorkuntza bekako 2.500 euro eta bere lana publikatuko da. «Oso maila altuko lana da» dio Pako Aristik.

NIK kontrolatzen dut makina poesia lanarekin irabazi du Miren Peñagarikano hernaniarrak aurtengo Karmele Igartua sorkuntza beka.

Poesia lanak aurkeztu behar ziren aurten eta zortzi jaso ziren. Itziar Gomez, Iñaki Zubeldia, Tere Irastortza eta Pako Aristik osatzen zuten epaimahaia eta idazle azkoitiarraren esanetan, lan batzuk oso maila altukoak izan dira. Erabakia hartzea ere kosta egin zaiela onartu du. Miren Peñagarikanori sari nagusia eman diote, 2.500 euroko beka.

Iruditeriaren aniztasuna, oroimen eta sentimenduak adierazterakoan konplexutasuna, eta poema luzeak nabarmendu dituzte besteak beste epaimahaiko kideek. ■



Sarituak, Miren Peñagarikano erdian, Udaleko eta Idazle Eskolako ordezkariak eta Karmele Igartuaren senideak.

Argazkia: GOIENA

■ ASTIGARRAGA PELOTA

Oier Gurutzealde, finalerdian bihar

Oier Gurutzealde astigarrak bihar jokatu du semifinala, Gipuzkoako Trinketeko Txapelketan. Irurako Ametsa trinketea izango da, 21:00etan hasita, eta Urnieta-ko Esnaola izango du aurrean. Etzi, Eñaut eta Ekain Lizeagak kadete mailan finalerdi bana jokatu dituzte bi hernaniarren kontra; Oartzabal eta Uitziren, aurka hurrenez hurren. ■

■ ASTIGARRAGA SAHARA

Material bilketak gaur jarraitzen du

Sahararako material bilketak gaur jarraituko du Xaguxar aisialdi taldeak antolatuta. Herri Eskolako patioan 16:30etan, Barandiaran plazan, 18:30etan, eta Isa Coviran dendan. Eskolako eta osasun materiala da bildu nahi dena Dajla kanpamendurako. ■

■ ASTIGARRAGA IPUINA

'Gose Handiko Beldarra', gaur

Gose Handiko Beldarra (Kalandraka) ipuinaren kontaketa egingo da gaur, 3 urteko aurrerako haurrentzat, Lur Korta kontalariaren eskutik. Astigarragako liburutegian egingo da 18:00etan. ■

■ HERNANI AHAL DUGU

Ahal Duguren bilera, gaur Biterin

Podemos Hernani Ahal Duguren zirkuluak gaur, Biterin, 19:00etan, bilera egingo du. Udal Hauteskundeetako programari buruz hitz egingo dute. Gipuzkoako Batzarkideak ere egongo dira. ■

■ HERNANI TXOTX IREKIERA

Hernaniko Pelota Mundua, omendua

Tilosetan egingo da aurten txotx irekiera, urtarrilaren 18an ostiralez, eta eguraldi txarra egiten badu, Atsegindegira pasako da. 19:30etan irekiko da aurtengo sagardo berria.

TXOTX denboraldia hastear dago eta irekiera ekitaldiak zehaztu dira. Astigarragan Olatz Arrieta kazetariak irekiko du, datorren asteazkenean, eta Hernanin baditu aurten bi berrikuntza garrantzitsu; asteke eguna eta lekua aldatu dira. Orain arte igandean egingen zen, Gudarien plazan, eta aurten ostiralez, urtarrilaren 18an, egingo da Tilosetan txotx irekiera. Eguraldi txarra egingo balu, kupela Atsegindegira pasako litzake.

Hernaniko irekiera ekital-

diak 19:00ak inguru hasiko dira, baina irekiera ofiziala 19:30etan izango da. Eta nork irekiko duen eta omenduak ere ezagutzen dira dagoeneko.

15 pertsona omenduko dira eta lau igoko dira kioskoko oholtzara

Hernaniko pelotagintza da aurtengo omendua, Hernaniko Txotx Mahaiak adostu duenez. 15 pertsona omenduko dira (pelota eskolakoak 12 eta Galarretakoak 3) eta oholtzan/kioskuan omenduen

lau ordezkari izango dira: erremonteko ordezkari bat (Endika Barrenetxea), esku-pilotako ordezkari bat eta erramintako nesken bi ordezkari. Gizon eta emakumeen parekidetasuna kontuan hartuko da.

Pelota eskolak, ordezkariak aukeratzeko ibilbidea izan du kontuan, lehenengo herri-arteke finaletik hasita: Jokatutako lehenengo herriarteke finala, irabazi zen lehenengo txapela, profesioaletara iritsitakoak eta afizionatuetan

titulu ospetsuenak irabazita-koak. Oraindik izenak ez dituzte ezagutzera eman pelotako arduradunek.

Egitaraua

Pelota erakustaldia izango da Tilosetako frontoian pelota eskolakoen partiduekin. 19:30etan Txotx denboraldiaren irekiera ofiziala izango da eta 20:00etan dantza ikuskizuna eskainiko du Ereintza dantza taldeak. Raketisten gaia hartuta sortu duen dantza saioa ikusiko da zuzenean. ■

P.L. MARGOAK
Landaribar, s.l.

ASTELEHENETIK OSTIRALERA
7:30 - 13:00
15:15 - 19:00
LARUNBATEAN
9:00 - 13:00

943 55 21 31
ANDRE KALEA, 45
HERNANI

50 URTE BAINO GEHIAGO ZUEKIN! AHOIKULARITZA PROFESIONALA.

Dekoraziorako eta industriarako pinturak
Mota guztietako zoru-pinturak
Fabriken preskripzio teknika (10 uteko gasetia)
Ahoikularitza teknika
Kolorre berdintzeetan espezialistak
Mota guztietako zoru-salmenta eta jartzea
3000 erreferentziatik gora paper pintatuetan
Biniloak
Sprayen ontziratzea
Etxez etxeko zerbitzua

Tripontzi jatetxea

PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KONBINATUAK
ARRAI FRESKOAK

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

ESPECIALISTAS EN MARISCOS

MARISCOS HERNANI

Javier Juaristi
609 674 344

Kale Nagusia, 20 - 20220 Hernani
943 555 156
mariscos hernani

TAXIAK: 943 550093 | **UDALTAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **IJOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103
/ **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** / **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani)

EGURALDIA **GAUR** Hotza dator, baina Kantauri isurialdean ez da lurrik ikusiko. Euri pixkat egin dezake eta eguerditik aurrera eta ekialdetik hasita, atertzera eta argitzera egingo du. **Min.1° / Max.6°**
BIHAR Lainoak eta urdinguneak, eta giro hotza. Minimoak oraindik eta gelaigo jeitsiko dira. Arratsalde-gauean lainoak ugartu egingo dira kantauri isurialdean. **Min.-1° / Max.6°**

HERNANI OH!-PRENTSA OHARRA

«Gezur sortak, egi sortekin erantzuten dira»

Orain Hernanik dio faltsua dela alkateak «gure taldeak euskeraren normalizazioaren gaian duen jarreraren inguruan egin duen erreflexioa».

ORAIN HERNANI talde politikoak prentsa oharra helarazi nahi die herritarrei Luis Intxauspek beraien inguruan egin dituen adierazpenei erantzunez. «Ez gaitzen inozenteeziak izan. Aurten hautetskundeak daude eta kontziente gara talde bezala jasoko ditugun eraso politikoez».

Gabonen aurretik Alkateak urtea agurtu zuen, baina aldi berean faltsua zen hausnarketa bat egin zuela dio Orain Hernanik, taldeak euskeraren normalizazioaren gaian duen jarreraren inguruan. «Ez dugu bere iritzia haintzat hartuko, baina bai prentsa-oharreak erabilitako tonua, ohitu gaituen moduan, autoritarioa eta errespetu gutxikoa izan baita».

Orain Hernanitik uste dute, «euskeraren sustatzea eman dadin, diskurtso positibo eta integratzaileak behar direla. Euskeraren normalizazio erreala bat lortuko litzateke hizkuntzaren ikasketa programa gehiagorekin eta egiten diren jarduerak bi hizkuntzetan egitea jendeak euskeraz egitera animatuz; azken finean, erakargarriak diren hizkuntza planak eginez. Hontaz hara- tago, demagogia eta gezur sorta».

«Oposizioko mintzaldietan mugikorrek begiraten zituzten, irribarre artean»

OH! udal taldearen esanetan errespetu gutxikoa izan zen zenbait Gobernu taldeko kideek urteko udaltzabar garrantzitsuenean izan zuten jarrera. «Oposizioak bere bozkaren inguruko arazoak ematen zituen bitartean, haien mugikorrek begiraten zituzten irribarre artean. Honen inguruan hausnartu beharko da».

«Gobernu taldeak aurrekontuak bakarrik onartutako udalbatzan, alkatea bitxikeria batean geratu da soilik, udalerrian daramakien gestio txarrari buruz hitz egin beharrean», diote oharrean.

Orain Hernanik legealdi honetan lehenengo aldiz aurrekontuen aurka bozkatu zuen, «konfiantza galtzeagatik, Gobernu taldearen gestioan, eta haienak diren aurrekontuak aurrera eramateko gaitasun ezagatik, eta ardura politikoagatik».

«Aurrekontuetara bideratutako diruaren zati txiki bat bakarrik erabili da»

Galdera batzuk luzatzen ditu Orain Hernanik. «Nola da posible Zerbitzu Publikoko eta

Hirigintzako zati baten menpe dauden obrak 998.000 euroko aurrekontua izatea eta 42.000 euro soilik erabiliak izatea (%4)?; nola da posible 2017ko aurrekontuetan hilerriko hobekuntzarako 79.000 euroko aurrekontua izatea eta hautetatik zero euro erabiliak izatea, eta gainera, 2019. urtean partidariak ez egotea agindu ziren hobekuntzak betetzeko?».

Orain Hernaniren galderek ez dute etenik eta beste hiru egiten ditu: «Nola da posible 2018ko aurrekontuetan zeuden 45.000 eurotatik parke eta lorategien hobekuntzarako, 4.500 euro soilik erabili izana (%10)?; Nola da posible Emakumeen Etxearen proiektuko inbertsioan etengabeko kreditu haundiagotzeak egotea 990.000 euroraino iritsi arte, eta gutxi gorabehera 25.000 euro gauzatzea?; Nola da posible Hernani Erabaki aurrekontuetatik, 2016 urtetik 1.018.000 euro onartuak izan direnak, 279.000 euro soilik exekutatutak izatea (%30 baino gutxiago)? Errespetu eta seriotasun gehiago erakutsi beharko lioke hain harro aldarrikatzen duten partehartzeari. Hau da, gezur sortak, egi sortekin erantzuten dira».

HERNANI PALA



Zumaiako infantrialak emaitza ezin hobekin parte hartu zuten.

Goiz ederra pasa zuten infantil eta alebinek Zumaiako

Hernaniko alebinak eta infantrialak bikain aritu ziren Zumaiako frontoian. Bakoitzak bost minutuko sei partidu jokatu zituen eta alebinetan, Intza Arregik partidu guztiak irabazi zituen, finalean Aiako ordezkariaren aurka galdu zuen arte. Infantrialan, Ane Kerejetak partidu guztiak irabazi zituen eta finalean bere taldeki de Enara Macicior gainditu zuen. Enarak Aneren kontra bakarrik galdu zuen. Goiz ederra pasa zuten. ||

HERNANI MANIFESTAZIOA

‘Okendo’-ri azken agurra bihar, manifestazioan

‘Kalera kalera’ ekimenak deituta Plazatik aterako dira 19:30etan, eta Tilosetan, bukatu.

«EUSKAL preso politikoak dis-pertsatuta, urrunduta, lehen graduak eta isolatuta daude eta gaixo larriak oraindik kartzelan mantentzen dituzte. Horien artean Gari Arruar-te eta Ibon Fernandez Iradi daude», azaldu dute.

Egoera hori salatzeke, «behingoz» euskal presoak etxeratzeke eta Juan Mari Maizkurrena Okendori azken agurra emateko, manifestazioa egingo dute bihar Kalera Kalera ekimenak deituta. Gudarien plazatik abiatuko da arratsaldeko 19:30etan eta Tilosetako pasealekuan bukatuko da.

«Kartzela politika krudela»

Igandean hil zen Juan Mari Maizkurrena. «Duela urte eta erdi ateratu zuten kartzelatik, kalean hil zedin». Gaixotasun larria zuen Okendo-enea basterriko semeak, «baina, hala ere, ederki kostatu zen kartzelatik ateratzea. Kalean egon zen bitartean hobera egin zuen zenbait momentutan, maite zuen jendearen laguntzarekin. Baina kartzela politika krudel honek igandean bete zuen heriotz sententzia. Euskal preso politikoak etxean nahi ditugu eta bizirik!», aldarrikatu dute manifestazioaren antolatzaileak. ||

HERNANI MENDIRIZ MENDI

‘Hernani ezagutuz: Latse’, igandean

Mendiriz Mendik *Hernani ezagutuz: Latse* irteera antolatu du igandean gaztetxoentzako. Biteritik abiatuko dira, goizeko 09:00tan. Ez da izenik eman behar, nahiko da Biterin azaltzearekin. Irteera doan da, eta Hernaniko txokoak ezagutzeko egingo da. ||

Eski ikastaroen informazio bilera, gaur

Urtarrilaren 12 eta 13an iraupen eskiko eta eski alpinoko ikastaroa antolatu du Mendiriz Mendik, eta honen inguruko informazioa emateko bilera deitu du gaur, 20:00etan, bulegoan. Bertan azalduko dira nola eman izena, eta gainerako xehetasunak. ||

HERNANI KIROLDEGIA

Igerilekuak itxita, larunbatean

Txapelketak direla eta etzi, larunbatean, kiroldegiko igerilekuak itxita egongo dira arratsaldeko 15:00etatik aurrera. ||

HERNANI CD HERNANI

Sorta zozketan saritua 151 zenbakia

Sorta zozketako azken zenbaki sariduna, urtarrilak 4ko zozketakoa, 151 izan da. Onddi Tabernan banatuta. Hurrengo zozketa, ostiralero bezala, bihar izango da. Errifak Hernaniko tabernetan daude salgai. Gogoratu irabazleak aukeran marisko sorta edo haragi sorta aukeratu dezakeela, bietako bat. Mariscos Hernani ete Balerdi harategiak- en laguntzarekin egiten da. ||

HERNANI HAURESKOLAK

Matrikulatzeko epea, bihar arte

Hernaniko Haurreskolan matrikulatzeko epea bihar arte egongo da irekita. ||

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)